



Bilboko autobusa
15 minuturo irteten da.





Gertaera baten denbora-maiztasuna (hau da, gertaera hori zenbatetik zenbatera jazotzen den) zenbakiz adieraztekotan, honako egitura hauetako edozein erabil daiteke, baina ez “-(e)ro” atzizkia:

- Hamabost minutuan **behin**
- Hamabost minutu**tik** **behin**
- Hamabost minutu**rik** **behin** (Ipar.)
- Hamabost minutuz **behin**
- Hamabost minutu**tik** hamabost minutura**a**



-(e)an behin

- Intsulina 24 ordu**an behin** hartzeko pauta terapeutikoa.
 - **Intsulina 24 orduro* hartzeko pauta terapeutikoa.
- Labearen erlojuak bost segundo**an behin** neurtzen du egosaldia.
- Hiru hile**an behin** ordaindu behar dut autoaren letra.



-(e)tik behin

- Radarrak 25 minutu**tik behin** neurtzen du haizea, eta 30 minutu**tik behin**, tenperatura.
- Horregatik, bi ordu**tik behin** edo, etenaldi laburrak egin beharko lirateke.



-(r)ik behin

- Hitzaldiak, oro har, hamabost egun**ik behin** izaten dira.
- Baiona-Hendaia autobus zuzena 15 minutu**rik behin** irteten da astelehenetik ostiralera.



-(r)tik... -(e)ra

- Trenak 07:25etik 09:00etara maizago ibiliko dira, hamar minutu**tik** hamar minutu**ra**.
- Pantaila hori 20 segundot**tik** 20 segundor**a** eguneratzen da.



-(e)z behin

- Ikastegiko Batzordea lau urtez **ez behin** berrituko da.
- 1991n hiru egunez **ez behin** kaleratu zen disko bat.



Baina esapidea zenbakirik gabekoa bada, zuzena da, jakina, -(e)ro atzizkia erabiltzea.

- Ikastegiko Batzordea urter**o** berrituko da.
- Autobusa ordu laurden**o** irteten da.
- Hil**o** joaten naiz mendira.
- Egun**o** erosten dut egunkaria.
- ...

Salbuespena: **hamabostero**

- **Hamabostero** epaitegira joan behar dut, sinatzera.